

Asisko gutuna

2016ko Abuztua.

2. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

94. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Jainkoarekin harremana lantzean sarri desioak jaten gaitu. Eta horregatik presa izaten dugu harreman horretan aurrera egiteko. Eta harremanak guk imajinatutako fruiturik eman ezean, etsi egiten dugu. Ez dugulako gudan halako aldaketarik nabari, edo betiko kontu gaindi ezinetan erortzen jarraitzen dugulako. Ezinbestekoa dugu Jainkoaren erritmora egokitzea, ezinbestekoa egunerokoa konfiantzaz eta pazientziaz apalki bizitzea.

Gogoetarako gaia

Egunerokoaren distira

Bizi ditugun gauza gehienak egunerokoan, arrunt den hartan, bizi ditugu. Errealitate hau onartzea ez zaigu erraz egiten; izan ere, beste gauzen artean, gure gizarte-giroak erreferentzia nerabeza-roan dauka, beraz emozioz indartsu den hartan, eta horregatik iragankorren: “bizi sentsazio berriak!”. Baina aspaldi joan zitzaizkigun nerabegaraiak, edozein gauzaren atzetik bizi ginenekoak, berria izanez gero: harremanak, lekuak, kantuak, esperientziak...

Bizitza zehatz eta erreala egunerokoaz, gauza arruntez, osatua dago. Egunak bata bestearen antzekoak dira, aurpegi berberekin aurkitzen gara, egiten duguna mekanikoki egiten dugu, lehen motibazioak aspaldi galdu zuten indarra... Une batean, ustekabeen, errutinan bildua ikusten dugu geure burua, bizitza grisa eramanez, automatikoki funtzionatuz...

Egunerokoaren distira aurkitzea da, hain zuzen, bizitzako ikasbiderik handienetakoa. Prozesu

misteriosu batean, hain justu, desmotibatzaile eta bizitzeko neketsu gertatzen zitzaiguna modurik errealea izaten hasten da bizitzeko, zehatz dena maitatzeko, egian bizitzeko. Egunerokoa da modurik errealea garen eta daukagun onena izateko. Pertsona zehatzak dira, beren alde on eta miseriekin, maite ditugunak, eta maite gaituztenak eta gurekin bizi direnak. Gehienetan errutinazko lana da, hain zuzen, norbere garapen-leku. Jada gaintu ezin ditudan zailtasunak dira, hain justu, neure libertatea landu ahal izateko mediorik egokiena. Era horretan arrunt dena bihurtzen da, gauzen eta pertsonen zuri-beltzen artean, “humusik” onena nire bizitza zehatza garatzeko.

Jainkoa haragi egin dela esaten dugunean, xume eta gris egin dela esan nahi dugu. Soilik horrela izan daiteke erreala haren presentzia gure bizitzatan. Horrela, soilik arrunt den horretan, egiten du distira haren argiak gure iluntasunean.

Ebanjelioko pasartea: Mk 6, 1-6

Handik alde egin eta bere herrira joan zen Jesus, bere ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok honela zioen harriturik: «Nondik honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Ez al da, bada, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arreba ere ez ote dira hemen gure artean bizi?» Eta honengatik, ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profeta bati edonon ematen zaio ohore, bere herri, senitarte eta etxean izan ezik». Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen eskuak ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesmenik ezaz.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Pobretasun txit santuaren jarraitzaile” gisa, ez zeukaten ezer, ez zeuden ezeri lotuak, eta, beraz, ez ziren ezer galtzeko beldur. Pozik ziren tunika bakar batekin, inoiz barrutik eta kanpotik adabatua, eta batere landu gabea... Edozein lekutan seguru bizi ziren; beldur eta ardura guztietatik libre; inolako kezkarik gabe itxaroten zuten hurrengo eguna.

Egunez, lanean zekitenek beren eskuez egiten zuten lan, legendunen etxeetan edo beste leku egokietan, guztiei apalki eta begirunez zerbitzu eginez. Ez zuten eskandalu-bide izan zitekeen lanbiderik onartzen, baizik eta eginbide santu, zuzen, onest eta onuragarrietan jarduten zuten, beraiekin harremanak zituzten guztiei pazientzia eta apaltasun etsenplua emanaz.

Horrelako bizimoduan, baketsu eta otzan ziren guztiekin; garbi eta baketsu ziren jokabide guztietan, eskandalu oro arretaz baztertuz. Bekaizkeria eta maltzurkeriak, gorroto eta irainak, susmo txar eta erre-
suminak, ez zuten haiengan lekurik, baizik eta bihotz batasun handiak, etengabeko bakeak, esker onak eta gorespen-hotsak.

Otoitza

Historiaren Jaun, nire urteen Jauna,
zure presentziak eguneroko arropak janzten ditu
nire bizitzaren gaurko egunean.
Ezagunak dituzu nire ametsak, itzalak, argiak,
nire penak, hegan egiten ez duten nire hegoak,
nire pauso sosegu gabeak...
Ezagutzen nauzu eta badakizu lanak ditudala
zu «pausoz pausokoan» ikusten,
betiko lanetan, «egunez egunekotan»,
distirarik ez eta mugak dituztenetan.
Garbitu nire begiak, nire Jainko senide egina!
Ezagutzen nauzu eta badakizu ez naizela jartzen
zure janzkira,
koloretan urria, zehatza, arrunta, higatua denera.
Zure aurpegi bila ibili naiz, nire urteen Jauna!

Zu igarotzean nire begiek itun-seinalea
ikusi dute, ezin gehiagoko maitasuna.
Konfiantza handiz itzuli dira
zuren bila,
grazia, kemena, atsedena eskatuz.
Bidelagun beti, nire Jainko eltzegile,
egin nazazu zure erara lurrontzi xume,
bakezko, isiltasunezko,
entrega bihurturiko doakotasunezko lurrontzi.
Ene bizitzako Jaun, adiskide, senide,
egin nazazu zure erara eguneroko keinu,
fede, entzute, eskaintza, besarkadazko keinu.
Ene Jainko laztan, ene Jainko bidelagun,
eskerrik asko ondotik igaro zarelako.

Gutuneko azken hitzak

“Zure etorkizunaren giltza zure eguneroko bizian gorderik dago”. (Pierre Bonard)

2016ko abuztuko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate abuztuko erreferentzia guztiak:

| | | | | |
|----------------|-----------------|-----------------|------------------|----------------|
| 1 Mt 14, 13-21 | 8 Mt 17,22-27 | 15 Lc 1,39-56 | 22 Mt 23,13-22 | 29 Mk 6, 17-29 |
| 2 Lk 1, 26-33 | 9 Mt 10, 28-33 | 16 Mt 19, 23-30 | 23 Mt 23,23-26 | 30 Lk 4,31-37 |
| 3 Mt 15, 21-28 | 10 Jn 12, 24-26 | 17 Mt 20,1-16 | 24 Jn 1, 45-51 | 31 Lk 4, 38-44 |
| 4 Mt 16,13-23 | 11 Jn 15, 4-10 | 18 Mt 22,1-14 | 25 Mt 24,42-51 | |
| 5 Mt 16, 24-28 | 12 Mt 19, 3-12 | 19 Mt 22,34-40 | 26 Mt 25, 1-13 | |
| 6 Lk 9, 28b-36 | 13 Mt 19, 13-15 | 20 Mt 23,1-12 | 27 Mt 25, 14-30 | |
| 7 Lk 12, 35-40 | 14 Lk 12, 49-53 | 21 Lk 13, 23-30 | 28 Lk 14, 1.7-14 | |



Abuztuko otoitzaldia 25ean izango da.